

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Zombat denbora bagen Eskual. Heretik jomak ^{jin.}
2. Zertak Eskualdun hek ez ziren egon
3. San Josef mintzatu zena?

ESKUALDUNAK EGYPTOAN

① (Eguerriko Kondaira) 2

Berriz ere joan, joan, desertuan barna, Egiptoan barna, bertze ~~itaso~~ bat oraino iraganik, azkenean, heltzen dira Jerusalemera. Sei ilhargi bethie bazuten Eskual-Heretik abiatuak zirela!...

Bainan, zer uste-gabeko nahigabea Jerusalemen! Andrede-na Mariarekin eta San Joseferekin, Jerusalemetik Egiptorat ihesi joan berria bide zen Jesus, Herodes tzarraren beldurrez!

-Herodes ospina! Hemen izan bagine bederen gure maki-lañoekin! Zer ximitzak eta ximixtak hire bizkarrean!... Berroien zkarra, ez bertzea!...

Bainan zer balio zuen hola marrumaz artzea?... Jo beraz Egiptora... Eta jin-bidez badoazi berriz Egiptora.

Joan, joan berriz ere, eta, ilhun-nabar gorri batez, bas-herri batetako etxe garbiño batean, berek ongi jakin ere gabe nola, huna non aurkhitzen diren... Jesus-Haurraren aintzinean!

Ama Birjinaren altzoan lo zagon zeru lurren Jainkoa, ja poxi bat handitua, ttarrotua³. San Josef, ixil ixila, lanean ari zen bazter batean...

Eskualdun etxeko-jauiak Jesusen ondoan belhauniko jada emanak ziren, egin-ahala polliki. Oi, heien nigar goxoak begietarik behera! Zer pil pil goxoa bihotzean! Bideko unhadura eta gal-menak⁴, oro ahantziak ziren orai, han, Jesusen aldean. San Josef, lanetik baratua, ixil ixila bethi, amultsuki beha zagon Eskualdun fede handiko gizon heieri.

Eta huna non Ama Birjinak, hiriño batekin, besoetan emaiten dioten, lokhartua oraino dagolarik, Jesus beren Jainko Salbatzailea... Gure arbasoen atsegina orduan! Bihotza erdiratzen zitzaieten, zorionaren zorionez! Han berean xoratu ez baitziren! Beharrik da Eskualduna kasko onekoa!...

③ ADITZ IKASKUNTZA

31. Izan bagine
32. jin. bidez badoatze
33. Lo zagon
34. Emaiten dioten
35. Bihotza erdiratzen zitzaieten.

31. IZAN. Eventuels

<u>1^{ere} forme</u> = Eventualité prochaine (si j'étais)	<u>2^{eme} forme</u> (si j'étais)	} Eventualité éloignée " Eventuel futur
Ni izan banintz	izan banindadi	
Hi -- bahintz	izan bahindadi	
Zu -- bagine	-- bazinte	
Hura -- balitz	-- baladi	
Gu -- bagine	-- bazinte	
Zuek -- bazintzte	-- bazintzte	
Hek -- balire	-- balite	

3^{eme} forme

(si j'avais été)	} indique une action réalisable, mais non réalisée (En français cela est exprimé par le plus-que-parfait.)	
Ni izan banintz		
Hi -- bahintz		
Zu -- bagine		
Hura -- balitz		
Gu -- bagine		= si nous avions été.
Zuek -- bazintzte		
Hek -- balire		

33. EGON.

<u>Indicatif:</u>	
<u>Présent</u>	<u>Imparfait</u>
Ni nago = je reste	nindagox = je restais
Hi hago = tu restes	hindagox =
Zu zande = vs restez	zinauden =
Hura dago = il reste	zagon =
Gu gande = us restez	ginauden =
Zuek zandete = vs restez	zinaudetzen =
Hek daude = ils restent	zauden = etc.

32. JOAN.

<u>Indicatif:</u>		<u>Imparfait</u>	
Présent: ni noa = je vais	hi noa = tu vas	nindoan = j'allais	hindoan =
zu zoatzi = allez	Hura doa =	Z zinoatzin =	H zoon =
Gu goatzi =	Zuek zoatze =	G ginoatzin =	Z zinoatzen =
Hek doatzi = etc.		H zoatzin = etc.	